

## ESKARI ORRIA

### ERRETIROA EDO ERRETIRO PARTZIALA HARTU AURREKO NEURRIAK

#### Datu pertsonalak:

Izena:	Lehenengo abizena:	Bigarren abizena:
NANA:	Jaiotze data:	Helbidea (kalea, zenbakia, solairua):
Herria:	Posta kodea:	Probintzia:
Telefonoa:	Helbide elektronikoa:	Kategoria:

Goiko datuak dituen langileak **honako hau eskatzen du** (markatu bakarrik dagokion aukera):

1.- Irakats ahalmena murriztea 2024/2025 ikasturteko \_\_\_\_\_ (lehenengo/bigarren) lauhilekotik aurrera, eman beharreko irakaslana formalki \_\_\_\_\_ (metatuz/metatu gabe), eta konpromisoa hartuz \_\_\_\_\_ (2024/2025/2026/2027/2028) ikasturteko \_\_\_\_\_ (urtarrilaren/abuztuaren) 31n honako hau hartzeko:

- Behin betiko erretiroa.
- Behin betiko erretiroaren aurreko eszedentzia, data honetara arte: \_\_\_\_\_.
- Erretiro partziala, eta honako hau:
  - Egoera horrek dirauen bitartean, irakaslana lanaldi partzialean egitea (% 50),
  - Erretiro partzialeko egoeraren hasieran irakaslana pilotzea (% 100).

2.- Erretiro partziala zuzenean, aurretik murrizketarik hartu gabe, data honetan hartzea:

3.-Baimen berezi ordaindua, 2025. urteko \_\_\_\_\_(a)ren \_\_\_\_\_(e)tik \_\_\_\_\_(urtarrilaren/abuztuaren) 31ra arte (baimen hau bateraezina da irakats ahalmena murrizteko neurriekin edota erretiro partzialarekin).

4.-Erretiroaren aurreko eszedentzia data hauen artean hartzea: \_\_\_\_\_ tik \_\_\_\_\_ ra.

5.- Genero arrakalagatiko baimen berezi ordaindua eskatzea.

6.- Eskari hau egin baino, aurreko deialdi batean aurkeztutako eskaera egokitzea, kontuan hartuta aurreko ataletan (1etik 5ra) aipatutako datak edo aukerak

#### Eta hau ADIERAZTEN DU:

- Eskari hau aurkeztu aurretik bere sailari jakinarazi diola erretirora pasatzen hasteko neurri hau eskatzeko asmoa zuela.
- Erretiroa hartuko duela horretarako emango den erabakian adierazitako egunean, eta horrela egiten ez badu justifikaziorik gabe, administrazioari itzuliko dizkiola hartu dituen murrizketa orduak.
- Eskari orri honekin batera agiri hauek aurkezten ditu (ez dira aurkeztu behar aurretik egindako eskariak egokitze kasuetan):

Lan bizitzaren txostena (irakasle funtzionarioen kasuan, egoera horretara pasatu arteko aldikoa).

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria edo, hori lortzerik ez badago, simulazioa, adierazten duena langileak zenbat urterekin beteko dituen erretiro partziala edo behin betikoa (aurreratua edo ohikoa) hartzeko baldintzak.

[Lan-bizitza lortzeko esteka \(portal.seg-social.gob.es\)](http://portal.seg-social.gob.es)

Sinadura:

Tokia eta data:



## DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA:

Eskari orri honetan emandako datu pertsonalak Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen Zerbitzuan tratatuko dira erretiroaren aurreko neurriak hartzeko eskariak kudeatzeko. Zure datuak babesteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu tratamenduaren arduradunaren aurrean. Eskari hau sinatu aurretik, mesedez irakurri honi erantsitako dokumentua, datu pertsonalen babesaren gainekoa.

### Arduraduna

Zure datuen tratamenduaren arduraduna:

- Identitatea: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. IFK: Q4818001B
- Posta helbidea: Sarriena auzoa z/g. 48940 Leioa - Bizkaia
- Web orria: [www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)
- Datuak babesteko ordezkariaren kontaktua: [dpd@ehu.eus](mailto:dpd@ehu.eus)

### Helburua

**Zein helbururekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?** Datuen tratamenduaren helburua da erretiroaren aurreko neurriak eskatzeko prozesua kudeatzea.

**Zenbat denbora gordeko ditugu zure datuak?** *Datuak gordeko ditugu zuk ezabatzeko eskatu arte eta, edozelan ere, horiek eskatzeko oinarri izan ziren helburuek bere horretan jarraitzen duten bitartean.*

### Datu pertsonalak

#### Zein kategoriatako datuak tratatzen ditugu?

Honako kategorietako datuak tratatzen ditugu:

Identifikazio datuak:

- NANA/IFK,
- izen-abizenak,
- helbidea (posta helbidea eta elektronikoa),
- telefono zk.,

Xehetasun pertsonalen datuak:

- jaiotze data,

Lanpostuaren datuak:

- kategoria.

### Legitimazioa

#### Zein da zure datuen tratamendurako legitimazioa?

Emandako datuen tratamendua kontratu harreman baten ondorioz egiten da.

### Hartzaileak

#### Zein hartzaileari jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Ez zaie hirugarrenei lagako tratamendu honen xede den daturik, legeak agindu ezean.

### Eskubideak

#### Zein eskubide dituzu zeure datuak ematean?

Edozein pertsonak dauka eskubidea jakiteko UPV/EHUn bere datu pertsonalak tratatzen ari garen edo ez.

Zure datu pertsonalak atzitzeko eskubidea izango duzu, bai eta datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeko eskatzekoa ere, besteak beste, datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak bildu zirenean zeuden helburuetarako.

Egoera jakin batzuetan, datuen tratamendua mugatzea eskatu ahal izango duzu, eta halakoetan bakar-bakarrik gordeko ditugu erreklamazioak egikaritzeko edo aldezteko.

Egoera jakin batzuetan, zure egoera partikularra dela eta, eskubidea izango duzu, edozein unetan, zure datu pertsonalen tratamenduaren aurka egiteko. UPV/EHUK datu pertsonalak tratatzeari utziko dio, noiz eta ez duen egiaztatzen arrazoi legitimo larriak daudela tratamenduari eusteko, edo balizko erreklamazioak aldezteko.

Zure eskubideak baliatzeko, webgune honetan dituzu eskari orriak:

<https://www.ehu.eus/babestu>

Era berean, informazioa duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren webgunean.